

# Aretxa gazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1998ko irailak 17 • 151. zka.




## Tatuaje eta piercinga

Gorputza norberaren gustura




Araba Ibilbidea - Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
 Tfnoa.: 943 79 18 44 - Faxa: 943 79 29 41



# EGUZKIGRAF

INPRIMATEGIA

*Kalitateak mugarik ez.*



## ARGÍ-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano  
 Zigorrola, 1 8. Pabilioaia  
 Tel.: 77 11 30  
 ARRASATE





# Tatuaje edo piercingik egingo zenuke?

## Ane Goikoetxea

(Ikaslea)

Ez, ez bata eta ez bestea. Gustatzen zaizkit, asko gainera, baina nik ez nuke egingo. Orratzek eta horrelako tresnek bedurra ematen didate.



## Jon Antoñana

(Ikaslea)

Ez, ez nuke ez tatuajerik ez eta piercingik egingo. Egia esan, horrelako gauzak ez zaizkit gustatzen.



## Alfredo Meabe

(Langilea)

Ezta pentsatu ere, ez zait batere gustatzen, gainera ez zait inoiz gustatu. Beste batzuei ikusteko ere ez dut atsegin.




## Elena Vazquez

(Langilea)

Bai, egingo nuke. Tatuaje bat egiteko sorbalda toki aproposa iruditzen zait. Baina hori bai, txikia eta diskretua egingo nuke.



## eskutitza



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

## Zuk ere har ezazu parte!

Dagoeneko jakinean egongo zarete hilaren 25 eta 27 bitartean, San Migel jaiak ospatuko direla herrian. Egun horietan herria girotu eta alaituko duten ekintzak ez dira faltako eta Aretxagazetak ere kalera irteteko asmoa du.

Ziur gaude zuetako askok hamabostero-hamabostero irakurriko duzuela Aretxagazeta, bazkide zaretelako edo denda eta tabernetan hartzen duzuelako.

Lehengo taldeko guztioi eskerrikasko zuen laguntzagatik, bigarrenoi, berriz, bazkide izatea ere eskertuko genizueke. Ba al dakizue gainera San Migeletan aukera ezin hobea egongo dela bazkide egiteko?

San Migeletako zapatuan hilak 26 konkretuki, postu bat jarriko dugu, eta bazkide egiten zareten guztioi, kamiseta zoragarri bat oparituko dizuegu. Eta galdetuko duzue, zenbat balio du Aretxagazetako bazkide izateak? Ba... 1.500 pezeta urte osoan baina

kontuan izan lehen esadakoa, kamiseta bat oparituko zaizuela.

Dagoeneko bazkide zarenok ere izango duzue kamisetak eskuratzeko aukera. Beraz, badakizue, San Migeletako zapatuan elkar ikusiko dugu! Ondo pasa.

**ARETXAGAZETA**

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 01 05. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Mirari Altube, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Iratxe Bengoa eta Amaia Gastañaga. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arrojaibe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzailea:** Itxaso Barbero. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin. Azala: TOTEM dendak utzitako argazkiak (Arrasate). Egilea: Sara Gonzalez.



## Resu Abasolo, Aretxagazetako postal lehiaketako irabazlea

Aurtengo postal lehiaketako irabazlea Resu Abasolo izan da. Resuk Ordesa aldetik idatzi zigun, Aretxagazetako irakurle eta langile guztioi gorantziak bialduz. Afari ederra dastatzeko aukera izango du Burgalesean. On egin!

Bestalde, gainontzeko postalak ere gustora jaso ditugu eta aurrerantzean bulegoko ormak dotore-

dotore apainduko dituzte. Eskerrik asko guztioi eta hurrengoan ere idatzi.

Alboko argazkia, ostera, uda honetan Cuban, La Habanan, ateratakoa da eta ikusten duzue Aretxagazeta bertaraino heldu zen. Eloy Moreno eta bere lankideak gure herriko berriak jakin guran ibili ziren baina ezer gutxi ulertzea lortu zuten.



## Kurtzebarri eguna Mendiolan

Egun euritsua azaldu zen domekan eta Kurtzebarri eguneko ospakizun guztiak Mendiolan egin ziren. Jon Molinak zuzendu zituen elizkizunak Mendiolako elizan, eta ondoren, elizpean, trikitilariak, txanpaina eta salda egon zen gerturatu ziren guztientzat. Dena dela, esan beharra dago, eguraldia kaskarra izan arren, jende dexente animatu zela tontorrera igotzen, beste batzuk, berriz, beldurtuta edo Mendiolan gelditu ziren.

**S.T.** Itzulpen zerbitzua

**ARETXABALETAN**

Alemana, frantsesa, ingelesa, umeentzako euskara

Matrikula zabalik: irailaren 26a arte

Informazioa: 943 79 00 69

Bulego orduak: arratsaldean  
3.30 pm - 6.30 pm

**OSKAR**

HARATEGIA

Loramendi, 1

☎ 943 79 71 69

**IBARRA**

ESTANKOA



Tabakoa eta ikasmateria

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

**M**

**MEMESA**

*Industri hornidurak*

Tfnoa: 943 71 24 11  
ARETXABALETA



## Apotzarako bidea txukunduko da

Apotzaetxebarritik Apotzara dagoen estrara zuloan (burdi bidean), 200 bat metro inguruko luzera duena, lurra bota eta oinezko eta bizikletentzako bide eroso egingo da. Bide zati hori ez dago batere egoera onean momentu honetan eta jendeak zelaia erabiltzen du pasatzeko.

Txukuntze lana Amaral enpresak burutuko du, eta honek Ederlanerako egin behar duen pabiloi berriko lur soberakina erabiliko du bidea betetzeko.

### Apotzarren inizatiba

Bide zati gehiena Eskoriatzako partean egonik, Apotzarren inizatiba izan da hau konpontzea. Dagoeneko apotzarrak auzolanean aritu dira, bidea garbitzeko asmoz. Lehenago ere izan zuten apotzarrek hau txukuntzeko aukera, "baina ez zen aurrera eramán", Jose Ramon

Apotzako auzoalkateak esan bezalaxe. Oraingo honetan, ostera, proiektua bi aldeentzat onuragarria da, alde batetik Amaralek lur soberakinak bertara eramango dituelako eta bestetik apotzarrek ez dutelako ezer ordaindu beharrik izango, beraz, proiektua aurrera eramango da.

### Atxabaltarrek erabili

Aipatutako bidea "betiko bidea dela" aipatzen du Jose Ramonek eta lehen apotzarrek Aretxabaletara jeisteko asko erabiltzen bazuten ere, orain atxabaltarren pasialeku bihurtu da. "Asentzio aldera doazenak, edo Gellaotik bueltan pasioa egiten duten atxabaltarrek erabiltzen dute bide hori gehienbat". Beraz, aurrerantzean batek baino gehiagok eskertuko du bidea ondo jartzea eta bizikletaz pasatzeko ere ez da batere arazorik egongo.



Oinezko eta bizikletedunentzat Apotzara dagoen bidea konponduko da

## Landeta botata pabiloi berria Ederlanek

Ederlanek pabiloi berria eraikiko du Aretxabaletan eta horretarako lanok hasita daudela esan behar da. Landeta baserria bota da eta leku horretan aparkaleku berria eraikiko da. Lehenago aparkalekuan, bestalde, pabiloi berri bat eraikiko du Ederlanek, lehendik dagoen aluminio injekzio planta haundituz.

Proiektua oraindik asanblada orokorretik pasatzeko dagoenez, ezin da berri zehatzagorik eskaini, beraz, proiektu honen berri aurrerago emango da.

## Jubilatuen eguna

Jubilatuen egunak aurreko urteetan izan duen arrakasta ikusita, aurtengoan ere jubilatugari elkartzeara espero dute udaletzeko gizarte zerbitzukoek urriaren 3an ospatuko den egun honetan.

Ohiturari jarraituz, goizeko 11etan salda dastatzeko aukera izango dute Basotxon. Ondoren meza nagusia entzundakoan, kiroletxean elkartzeko dira guztiak bazkaltzeko. Hemen fritoak, entsalada mixtoa, legatza eta tarta izango dituzte jateko eta tripa ondo bete ostean Ludi Berrikoekin dantzaldia egongo da. Egun honetako bazkarirako txartelak irailaren 21etik 25era, 11etatik 12,30etara bitartean Basotxon egongo dira salgai 500 pezetan.



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



# San Migeletan badago zer egin

**Andoni Zubizarretari omenaldia, Loramendik eskeinitako salda, Lizaso eta Egaña bertsolariak, feria, herri kirolak... izango dira aurtengo San Migeletan**

Gehienontzat oporrak bukatu berri dira, eta batek edo bestek oraindik gainean izango du Andra Mari jaien arrastoa. Baina atsedetik hartu gabe, oraingoan ere fin ibili dira herriko jai batzordea, kulturako arduradunak, Loramendi elkarte eta baita herriko beste talde batzuk ere: KIUB (kontsumitzaileen Udal informaziorako bulegoa), talde internazionalista, UDA, Ortzadar... eta ekintzaz beteriko San Migel jaiak antolatu dituzte.

Irailak 25ean hasiko diren jai hauei hasiera emateko, eta poliki-poliki girotzen joan asmoz, arratsaldeko 6etan txupinazoa izango da Herriko plazan. Ondoren, bonba japoniarrak eta buruhandi eta erraldoiak izango dira. Bestalde, 7etan antzerkia izango da herriko plazan. Nor izango den antzezlea? Sorpresa-sorpresa, bertara gerturatu eta ikusiko duzue. Gorputza mugitzeko gogoia izan ezker, gauean dantzaldia Ene Bada taldearekin Mitarte kalean.

10,30etan danok gora! dianarekin batera, egun honi hasiera emango zaio eta. Trikitilariak, salda, Lizaso eta Egaña bertsolariak, talo eta sargardoen postuak, artisau feria, produktu biologikoen feria... egongo dira goizean zehar. Herri bazkaria talde internazionalistak antolatuko du aurten, eta honen ostean ere egongo da zer egin, gaiteroak, Beinke-Loramendi dantza, Andoni Zubizarretari agurra eta gauean Eztanda taldearekin erromeria bikaina.



Andoni Zubizarretak omenaldia jasoko du Beinke-Loramendi dantzaren erdian

Domekan beste horrenbeste. Sa-soitsu behintzat hasiko da eguna, gazte mailako txirindulari lasterketa eta herri kirolak izango dira. Arratsaldean mus txapelketa eta haurrentzako parkea. Guzti honekin, jaiak amaiera emango zaie hurrengo urte arte.

## Feria eta patxaran lehiaketa

Produktu biologikoen feriak eta artisau feriak Durana kalean eta plazan izango du lekua. Bertan Euskal Herri osotik hurbildutako artisau elaborazioa duten jakiak eta produktuak egongo dira ikusgai, ortuko produktu ederrekin lagundurik. Jakina, aurten ere trofeoa izango du itxura ederrena duen barazki postuak. Honez gain horrenbeste arrakasta

izaten duen patxaran lehiaketa ere ez da faltako. Kasu honetan ere epaimahaikideak hor izango dira patxaran guztiak dastatu eta trofeoa nork irabaziko duen aukeratzeko gertu.

## Andoniri omenaldia

1994. urtean Beinke-Loramendi dantza kantuaren aurkezpena egin zenetik, San Migel jaietako ekintzarik esanguratsuenetakoa bihurtu da. Urtetik urtera dantzariak gehituz etorri dira eta herritarrak hutsik egin barik jeisten dira plazara Loramendi elkarteak antolatzen duen ekitaldia ikustera. Orain hiru urtetik hona, bestalde, dantzaldiaren erdian omenalditxo bat egin izan da, eta aurten Andoni Zubizarreta izango da omendua. Zorionak Andoni!

*©kindegia - Gozolegia*

**Aretxabaleta**

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta  
Bertako okina

**Iber**

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2  
Tfnoa: 943 79 79 24

Pelikularik hoberenak

**DON BIDEO**

Lezama Merkatal zentrua  
ARETXABALETA





Irailaren 20an ospatuko da haur dantzarien eguna

## Haur dantzarien egunak 350 dantzari batuko ditu domekan

Aspaldiko urteetan bezala datorren domekan, hilak 20, haur dantzarien eguna ospatuko da herrian. Egun honetan Loramendi taldeko dantzariak gain beste sei herritako dantzariak ere izango dira: Oñati, Arrasate, Eskoriatza, Bergara, Antzuola eta Soraluze. Guztira 350 dantzari inguru elkartuko dira, antolatzaile, eta txistulariariekin batera.

### Goiz eta arratsaldean dantzak

Dantzari eguneko ekitaldiak goizean-goiz hasiko dira beste herriko taldeei ongi etorria emanez herriko plazan. Hamaiketakoaren ondoren taldeak banatu egingo dira herriko txoko desberdinetan dantzatzeko. Goizeko saioaren ondoren herriko etxeetan zein elkarteetan bazkalduko dute eta arratsaldean herriko plazan izango da alardea. Hemen neska-mutilek bananduta egingo dute dantza, mutilek Banakoa, Ikurrin dantza eta Jorrai dantza, eta neskek, Gipuzkoako zinta dantza, Zuberoko Makin dantza eta Makil dantza kapitanekin dantzatuko dute. Bukatzeko, bolo-boloak

arratsaldeko betan emango dio amaiera dantzari egun honi.

### Bazkarirako deia

Esandako moduan 350 haur inguru hurbilduko dira domekan Aretxabaletara. Hori dela eta, etxean umeak hartzeko deia luzatu du Loramendi dantza taldeak. Azken urteotan ohitura honek izan duen indar galtzea ikusirik, Loramendi elkarteak jendea haurrak hartzera anima dadin dei egiten du.

Indarra galtzearen arazoa orokorra da eta Aintzane Aizpuruak Loramendi dantza taldeko kideak esandakoaren arabera gainontzeko herrietan ere gertatzen da. "Lehen askoz ere jende gehiago aurkezten zen umeak etxean hartzeko. Orain, gero eta gehiago, elkarte eta tabernetara joaten dira". Hala ere honelako egunak beharrezkoak direla gehitzen du Aintzane, umeen dantzarako ilusioa mantentzeko batez ere. "Azken batean umeak herritik irteteko eta ikasitako dantzak jendaurrean erakusteko egun aproposak dira, eta oso ondo pasatzen dute gainera".

# 9899 Ikasturtea

- Oinarizko Ofimatika Office '97 Inguruan
- Diseinu eta Komunikazio Grafikoa
- Fotokonpozizioa:
- Adobe Photoshop
- Komunikazio eta Sare Lokalak: Windows NT
- Programazio Informatikoa
- Kontabilitate eta komertzial Gestio mekanizatu
- Zerga Gestioa PYMES-etan
- Giza Errekurtsoen Administrazioa
- Kanpo komertzioa
- Mekanografia ordenagailuz
- Laguntasun Klaseak
- Postari Oposaketak
- Planoen Interpretazioa
- Kalitatearen Gestioa
- Internet

- Administrazio Teknikaria
- Administrazio Laguntzailea

## BERRIAK

- Hegalaldi Azafata (TCP)
- Hegalaldi laguntzaileak-gizonezkoak (Titulazio ofizialeko ikastaroak)
- Ekipo informatikoen mantenimendua eta konponketa

**LANGAI-**  
Euskal Lan  
Zerbitzura  
Atxikia

Larunbat  
goizetan  
klaseak  
emateko  
aukera

## MATRIKULA ZABALIK

AKADEMIA

**BASTIDA**

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb., 3 - 1.a  
20500 Arrasate-Mondragón  
Tel.: 943 79 35 33  
Fax: 943 79 06 28  
E-mail: bastida@tsai.es



# Juan Jose Olabe Venezuelan Jesuita

Aretxabaletan sortua bada ere oso gaztea zela, 21 urterekin, joan zen Venezuelara Juan Jose Olabe Jesuita. Bere bizitzaren erdia baino gehiago Venezuelan egin du baina gogoan du gaztetako Aretxabaleta, eskola nazionala ibili zeneko garai hura, Don Benito, Don Cirilo maixuak...

Oraintxu gure artean bete ditu 69 urte, eta ondo baino hobeto aprobetxatzen jakin du hemen igarotako denbora, Aretxabaletara etortzea beti baita polita bere berbatan.

- Zer moduz igaro dituzu Aretxabaletan egin dituzun egun hauek?

- Oso ondo. Bost urtean behin norbere jaioterrira itzultzea oso pozgarria da. Hara eta hona ibili naiz gainera, Londreseko bidaian ere egon nintzen eta lekuak ikustez baino gehiago, taldean egon zen giroaz gozatu nuen.

- Juan Jose nola gogoratzen dituzu Venezuelara joandako



Juan Jose Olabe Venezuelako Jesuita taldearekin

hasierako urteak?

- 1949. urtean Loiolan nobiziatua bukatu aurretik Venezuelara bidali ninduten 21 urte nituela. Bertan urtebete egin nuen nobiziatua bukatzen eta ondoren Colombian filosofia eta letrak ikasi nituen. Gero beste bost urtez

EEBBetan teologia ikasketak burutu nituen. Venezuelara itzuli nintzen handik eta hasieran herriaren hezkuntzan lanean jardun nuen. Hamalau urteren buruan itzuli nintzen lehen aldiz Aretxabaletara.

- Eta orain zertan diharduzu

**PAGALDAI**  
Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14  
ARETXABALETA

**MAITE**  
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05  
ARETXABALETA

## ARRASATE PRESSeko harpidetza berriztu nahi duzula?

Gure kontu korrontean 3.000 pta.ko diru sarrera egin dezakezu irailaren 31 baino lehen, kontu korronte zerbaki hauetako batean:

- KUTXA 001.026694.8 (Portaloiko bulegoa)
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kaleko bulegoa)

Ingresoa egiterakoan garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean bidali behar den.

ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu, zatoz gure bulegoetara eta jakinaraziko dizugu.

Tel: 943 79 02 26 Helbidea: Otalora Lizentziatua, 31 ARRASATE

*Matikua*

Jatetxea eta taberna

Azatza auzoa • 943 79 16 68



**bertan?**

- Nire lan arloa hezkuntza izan da beti. Hasieran herriaren hezkuntzan lan egin nuen, herriko taldeekin, herriarrekin orokorrean. Momentu honetan Barquismetoko hirian Jesuiten hezitzaile taldean nago. Hogei gazte ditugu nobiziatua egiten, eta bi arduradun gaude hauen heziketa bideratzeko. Hala ere, nik gustokoago dut herriaren hezkuntzan lan egitea.

**- Zein ildotik bideratzen duzue Jesuiten heziketa?**

- Gure herriaren errealitatearekin bat datorren heziketa izan behar da, egoera soziala, ekonomikoa, politikoa... kontuan hartzen duena.

Bestalde, etorkizuneko ikuspegi ezin da alde batera utzi eta horri garrantzi handia ematen diogu Jesuiten heziketan. Etorkizuneko Venezuela nolakoa izango den abiapuntutzat hartuz, heziketa ildo horretatik joan behar da.

**- Venezuela herrialde aberatsa izanik, nola dago momentu honetan bertako egoera politikoa eta ekonomikoa?**

- Datozen hauteskundeak abenduan izan behar dira eta herriak aldaketa nahi du. Gobernuan dagoen talde demokratari partidokrazia deitzen diot nik. Gobernu faltsua da, proiektu eta plan eraginkorrik ez duena. Honek atzerapen nabarmena ekarri du Venezuelarentzat, korrupzioa eta segurtasun eza handiak dira.



**“Jesuiten heziketan  
etorkizuneko  
Venezuelan pentsatu  
behar dugu eta  
hezkuntza hortik  
bideratu”**

Hezkuntza eta osasun arloa ere ez daude egoera hobean. Venezuela herrialde aberatsa izanik, ez litzateke egoera horretan egon behar.

**- Beraz, egoera politikoa hezkuntzan eta osasun arloan ere****eragin nabarmena izan du?**

- Bai, dena lotua dago. Hezkuntzan esaterako, eskolara doazen umeetatik %54ak bakarrik bukatzen du lehen mailako irakaskuntza. Batxilergoa %25ak eta horietatik %15a unibertsitatean sartzen bada erdiak edo amaitzen du.

Osasun arloa ere egoera larrian dago. Imagina ezazu eritetxe batera norberak bere izara, tenedora... eraman behar badu.

**- Beraz, asko aldatu da zuk ezagutu zenuen Venezuelara eta gaur egunekoak.**

- Bai, duda barik. Ni Venezuelara heldu nintzenean bolibar batek 30 pezeta balio zituen. Orain, berriz, pezeta batek lau bolibarren balioa du.

Atera kontuak! Soldatak oso baju daude eta pobrezia handia nabari da. Beste aldaketa esanguratsu bat ere gertatu da, populazioarena. Honek izugarritzko hazkuntza izan du, hiru milioi biztanle zituen Venezuelak ni hara joan nintzenean, eta gaur egun 20 milioi biztanle bizi dira bertan. Europako inmigratio handia jaso zuen Venezuelak orain urte batzuk, baita Euskaldun ugari ere.

**- Datozen hauteskundeetan esperantzarik bai?**

- Aurten lehendabiziko aldiz emakume bat aurkeztuko da hauteskundeetara, Irene Saez, Miss Universo izandakoa. Herri bateko alkatesa da eta gestio ona egiten ari da bere herrian. Estadistiken arabera bera dago zerrendan lehen.

**BEIRALAN**

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaia

**KRISTALDEGIA**

Herriko plaza, 8 behea  
☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA



*Zubia*  
Oinetakoak

**Poltsak • zapatak • gerrikoak**

Mitare 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE





## Baina nor biziko da herri honetan?

# Nolakoa nahi dugu Aretxabaleta?

Azken urte hauetan Aretxabaletan etxebizitza berri asko egiten ari gara. Herria berritzen eta haunditzen ari da. Auzo berriak, kale berriak... Gauza polita da herri txiki bat haunditzen ikustea. Baina nor biziko da herri honetan?

Etxe berriak egiteko zoluak erosi behar dira, urbanizatu ondoren eta azkenik etxeak eraiki. Zoluak garesti saltzen dira, jабego pribatuari erosten baitzaizkio. Urbanizazioa ere ez da merkea izaten eta eraikitzeko behar den dirua ez da ahaztu behar. Gainera etxea lortzeko eskubidea izateko, jende gehiegi baitago etxe zai, eskupeko izugarriak ordaindu behar dira. (Noizarte itxoingo dugu eskupekoen kontua salatu gabe?) Eskupekoa ordaintzeko ezin da krediturik eskatu edo gutxienez ezin zaio haziendari horren berri eman, hori ezin baita gure errentaren adierazpenean sartu. Ez dago eskubiderik!

Etxea erosi nahi dugunon bigarren aukera, bigarren eskuko etxeak dira. Salgai dauden bigarren eskuko etxe gehienak, etxe berria erosi nahi duten pertsonenak dira eta hauen diru beharra dexteoa izaten da; nork esango

die prezioa ez dela zuzena?

Horretaz gain etxe piloa dago hutsik eta inork ez ditu saldu nahi. Saldu nahi ezak, ez du etxeen salneurria jeisten laguntzen. Alokatzera da azken aukera baina ez daude etxe asko alokatzeko eta prezioa ez da errez ordaintzekoa izaten.

Guzti horrez gain, gaur egun lan finkoa izatea ez da erraza izaten eta horrek ez du egoera errezten. Nolakoa nahi dugu Aretxabaleta? Eskeintzen dena ordaintzeko gai ez denak, zer egin behar du? Aretxabaletatik alde egin? Dirudunak bakarrik nahi al ditugu gure herrian?

Nik ez dut hori nahi. Nik nahiago dut Aretxabaleta, pertsona jator eta apalak dituen herria izaten jarraitzea eta oraintxu hartu duen bideak ez du hori lortuko.

Etxe berriak merkeagoak nola izan pentsatzen hasi behar gara. Agian udaletxeak zoluak erosi eta urbanizatzeko erreztasun gehiago jar ditzake; utzik dauden etxeen jabeek, etxea erabiltzen edo bestela saltzen lagundu behar diegu eta noski, etxe berriak erosteko ordaindu behar diren eskupekoak desagertu egin behar dira behin betiko.

Oier Etxebarria

**MIREN**

*Ehunak eta berrietasunak*

*salneurri bereziak*

Murubide, 1 ♦ 943 79 67 97

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea

**Angelines**

AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42



**Orain merkealdiak**  
**Esko Sport**

Intxaurtxueta, 5

☎ 943 71 52 96 ESKORIATZA

Zapatu arratsaldetan  
zabalik



# Gorputza apaintzeko grina

Norberak jartzen dizkio gorputzari mugak eta batzuk gorputzari ikutu berria ematen saiatzen dira. Aldatzeko erak asko dira, horien artean tatuajea eta piercinga gaur eguneko estetika eta modaren parte dira, eta haruntzago joanez modalitate radikalagorik ere bada, brandinga eta eskarifikazioa esaterako.

Gure artean gero eta ohikoagoak bihurtzen ari dira era honetako apaingarriak.

**P**iercingak zein tatuajeak aintzinako kulturetan dute beren jatorria. Talde


bateko kideek helburu erlijioso eta majikoetan oinarrituz, beren gorputzak margotzen edo eta zulatzen zituzten. Mota honetako praktikak esaterako Indian, Afrikan eta Ozeanian ezagutzen dira.

## MODA KONTUAK

Egun, oster, mundu guztira zabaldua daude tatuaje eta piercinga eta bi modalitateok BODY ART deritzaionaren barruan ezagun eta zabalduenak dira. Gero eta gazte gehiago dira gorputza apaindu asmoz, gorputzeko atal desberdinetan belarritakoak edo antzekoak jartzen dituztenak. Dena dela, Arrasateko Totem dendan

tatuajeak egiten dituen Sara Gonzalezek ez du uste tatuajea modan dagoenik, baizik eta, nolabait esateko tatuaje eta delikuentziaren arteko erlazioa puskatu egin dela. "Gainera moda beti momentukoa izaten da eta hori ez da tatuajearen kasua", dio.

Telebistak berak ere moda kontuan oso eragin handia du. "Telebistak mirariak egiten ditu eta jendeak telebistan ikusitakoak kopiatzen duela garbi du Alberto Mansok, Aretxabaletako Alberto ileapaindegikoak. Orain gutxi arte tatuajeak egiten zituen bilbotar bat izan zuten ileapaindegian eta itxura denez jende asko animatu



Egun oso modan daude piercinga eta tatuajea





zen bertan tatuajea egitera. Joana Mirandak bertan egin zuen tatuajea Aste Santu inguruan eta oraindik adinez nagusia ez denez, bere amarekin joan behar izan zuen. "Bizkarraldean egiteko ideiaz joan nintzen baina marrazkia bertan aukeratu nuen. Orkatilean egitea ere gustatuko litzaioke baina hori aurrerago agian.

## TATUAJEA, AZALEKO GRABATUA

Mota eta adin guztietako jendea animatzen dela dio Sarak tatuajeak egitera. "Gazte jendea nagusitzen da gehien baina badira euren betiko kapritxoa egitera etortzen diren gizon-emakumezkoak ere. Gehiengoari aholkatu egin behar zaio, baina eskertzen da norbaitek benetan zer egin nahi duen dakienean".

Jende gehienak, bestalde, tatuaje bat bere tamainuaren arabera baloratzen du, baina garrantzitsuena lanaren konplikazioa dela dio Sarak. "Tatuaje txiki bat izan daiteke baina lan handia eskatzen duena". Honetaz gain bizi guztirako egiten den zerbaite dela

**"Preziosa eta kalitatea ez datoz askotan bat, kasu hauetan egokiena tatuaje egilearen lanen argazkiak eskatzea da"**

kontuan hartuz, kontuz ibili behar da tatuajeak egiterako orduan. "Kalitatea eta preziosa ez datoz askotan bat eta kasu hauetan onena estudio batera sartzean tatuaje egilearen lanen argazkiak eskatzea da".

Arlo honetan ere profesionaltasun osoz lan egin behar da, bizi guztirako den zerbaite dela pentsatu behar baita. Gaur egun laserraren bidez tatuajeak kentzeko teknikak oso aurreratuta dauden arren, oso garestiak dira. Beste kasu batzue-



tan, tatuaje bat desagertzeko, gainean beste bat egin izan duenik ere bada.

## PIERCINGEAN GARBITASUNA BEHARREZKOAK

Larraitz eta Mirari Arando ahizpek piercingak hasieran behintzat garbitasun handia eta zainketa berezia eskatzen duela diote. "Zuloa egin eta hasieran oso ondo zaindu beharra dago, bestela infekzioak gerta daitezke. Normalean ez da arazo larririk izaten,



*Piercinga egin ostean harreta berezia eskaini behar zaio hau ondo sendatzeko*





Larraitzek espainean du piercinga eta Mirarik bekainean

**Tatuaje eta  
piercingean  
profesionaltasuna  
beharrezkoa da,  
besteen gorputzean  
lan egitean  
perfekzioa bilatu  
behar baita**

baina badaezpada ere aholku batzuk ematen dituzte: hasieran eskuekin ez ikutzeko, beti garbi edukitzeko, betadine apur bat emateko..." Larraitzek eta Mirarik emandako aholkuak jarraitu dituzte eta ez dute arazorik izan. Zuloak sendatuta dituzte dagoeneko.

Larraitzek orain bi urte inguru zilborrean zuloa egitea erabaki zuen eta Bilbora joan zen horretarako. Profesionaltasun handia eta inpresio ona jaso zuen bertan, eta egun batetik bestera egin zuen espainetakoa. "Dena oso ondo zainduta eta garbi zegoen eta norberarekin erabilitako orratza datu pertsonalekin gordeta uzten dute". Mirari bere ahizpa ikusita animatu zen bekainean piercinga egitera eta orain beste bat zilborrean egiteko asmoa du. Gainera ia minik ez ei du egiten beraiek adierazitakoaren arabera. Hori bai materiala nahiko garestia dela diote, hau berezia izaten baita: azero kirurgikoa, titanioa, meta-krilatoa... Hauek 800 eta 6.000 pezeta bitartean balio dezakete.

Gazteek nahiago izaten dute piercingak ikusten diren lekuetan egitea, zilborrean, sudurrean edota

bekainean, baina badira mingainean eta genitaletan egiten dituztenak ere.


Zulaketak berehala egiten dira eta zulo bat egitera doan edonork, lehenengo belarritakoa aukeratu behar du. Behin hau aukeratuta esterilizatu egiten dute. Belarritakoa duen zuloa azalean margotzen da eta inguruan jela jartzen da orratza sartzean honek minik ez egiteko. Erabili eta botatzen den orratz batekin egingo da zuloa eta gero berehala sartuko da belarritakoa.

#### **PROFESIONALTASUNA ETA KALITATEA**

Tatuaje eta piercingean ere profesionaltasuna beharrezkoa da, besteen gorputzean lan egitean perfekzioa bilatu behar baita. Piercinga modan dagoela ikusirik, gero eta jende gehiago da mundu honetan lanean hasi dena eta sarri profesionala ez den jendeaz topo egiten da, horregatik kontu izan behar da eta aldez aurretik ondo informatu. Sarak diozkunez, piercinga profesional batek egindakoa izan behar da, honek materiala non jarri behar den ondo jakin behar

baitu nerbio eta muskuluak ez zauritzeko.

Badaude piercing eta tatuajei buruzko ikastaroak baina Sararen ustez egokiena beste profesional batekin ikastea da. "Nik tatuajeak egiten dakien profesional batekin ikasi nuen eta honek piercingaren alde teorikoa erakutsi zidan. Dena dela, teknika ikasitakoan, kalitatea norberak duen abileziaren araberakoa da.





## Sei gol sartu zituen UDAk domekan

Dagoeneko, preferente mailako jokalariek hasi dute aurtengo denboraldia eta bikain hasi ere. Lehenengo partiduan Beti Gazte taldea izan zuten aurrez-aurre eta gol bako partidua izanik, berdinetaz bukatu zen. Pasa den domekan, berriz, 6-0 emaitzarekin nagusitu ziren etxekoak Beti Ona taldearen aurka. Jon Ander Larrinaga fin ibili zen lau gol eskuratuz eta Asier Ingiduak eta Iban Gonzalezek bana sartu zituzten. Honela jarraituz gero ez zaie bat ere gatxa izango pasa den denboraldian lortutako hirugarren postua eskuratzea.

### Entrenatzaile berria

Denboraldi aldaketarekin batera, entrenatzailea ere aldatu du preferente taldeak. Aurrerantzean Iñaki Ceciagak zuzenduko du

UDAKo talderik nagusiena. Esan beharra dago arrasatear hau orain urte batzuk ere UDAKo entrenatzailea izan zela.

### Preferenteko altak eta bajak

Denboraldi hasierarekin batera preferente taldea eraberriturik datorrela esan behar da. Zortzi jokalarik utzi dute UDAKo nagusien taldea. Xabi Lasagabaster atezainak Aurrera Vitorian jokatuko du datorren denboraldian. Era berean, Urbina, Joseba Arana, Iker Agirre, Gorka Akixu, Asier Larrea, Iban Buceta eta Zuñigak ere agur esan diote taldeari.

Bestalde, taldekide berriak honako hauek dira: jubenetik igo diren Asier Murgoitio, Astola eta Alarcia; Egoitz Garai erregionaleko taldetik datorrena eta kanpotik Tola eta Matalobos.

## San Migeletan azken proba

Dorletako Ama Txirrindulari eskolako partaide gehienek, orain dela hilabete pare bat bukatu zuten beraien denboraldia. Hala ere, talde bereko jubentilek oraindik gogor jarraitzen dute lanean.

Pasa den asteburuan Oñatin izan zuten lasterketa, hilaren 19an Beasainen izango dute beste bat, 26an Urnietan eta azkenik, 27an, denboraldiari amaiera emango diote herrian ospatuko den XVII. San Migel Txirrindulari lasterketarekin batera.

Denboraldiari balorazioa egi-terakoan, orokorrean ondo erantzun dutela esan behar da.

## Almeneko eskubaloi taldearen aurkezpena

Pasa den zapatuan, Leintz-Gatzagako Udalak eta bertako Jakion S.L enpresak babesten dituzten Almen ikastetxeko Gazte eta Kadete mailako eskubaloi taldeen aurkezpena egin zen Leintz Gatzagan.

Ekitaldian Jakion enpresako kide batzuk, Eugenio Otxoa Leintz Gatzagako alkatea eta bi taldetako jokalarik, entrenatzaile eta delegatuak izan ziren. Kadete mailako entrenatzailea Andoni Arando da eta delegatua Juan Luis Isasmendi. Jubentilen entrenatzailea, berriz, Jesus M. Labayen izango da eta Manolo Lopez taldeko delegatua.



Preferente mailako jokalariek entrenamenduan

ARGAZKI

*Urkiola*

Tfnoa: 943 79 39 20  
ARETXABALETA

GARBITU S.  
COOP.

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekararren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

REGIANDO

*optika*

Loramendi, 10  
☎ 943 79 98 21

*Carmen  
Fernandez*

**ABOKATUA**

Belorrieta Auzoa, nº 14 -4º A  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: (943) 77 05 94  
Fax: (943) 79 65 21



# Joseba Arana

## “Hamar urte egin ditut preferente mailan”

Hasi berri den futbol denboraldi honetan, ez du Joseba Aranak UDA taldeko preferente mailan jokatu, denbora falta dela eta, uztea erabaki baitu. Hala ere beti aurkitzen du unetxo bat edo beste, entrenamenduetara joateko.

### • Zenbat urte futboleant?

Mutikoa nintzela eskola mailako futbol taldean sartu nintzen. Horrela, urteak joan urteak etorri, UDAn hasi nintzen. Bertan, pasa den denboraldia arte egon naiz.

### • Preferente mailan zenbat urte egin dituzu?

Uff, asko! Hamar bat izango dira. Beste mailetan ere, horrenbeste izan dira gainera.

### • Nola definituko zenituzke preferente mailako partidua?

Egia da ez daukatela izugarritzko mailarik, baina oso serio jokatzen dira. Partidu serioak direla esango nuke.


### • Zein izan da zure lana?

Nik erdian jokatzen nuen, gehinetan ezker aldean gainera. Postu horretan lana egin behar da (besteetan bezala), baloia ez dadin atzera joan eta era berean aurkakoaren atera eramateko.

Honelako postuetan normalean pertsona azkarrak egoten dira, nire kasuan horrela gertatzen ez den arren.

### • Futbola kirol bezala gogorra da?

Nik baietz uste dut. Guk adibidez, entrenamenduak astean hirutan egiten



## “Durango eta Lemonara joateko aukera izan nuen”

genituen, eta asteburuan partidua. Astelehena nahiko lasaia izaten zen arren, eguazten eta eguakotxetan gorputzari gogor ekiten genion. Preferente mailan ibiltzeko, gustatu egin behar da, bestela gogorra egiten da oso.

### • Zer aldatuko zenuke UDAko entrenamenduetan?

Orokorrean ondo daude. Baina fisikoa lantzen genuen egunetan adibidez, baloia faltan botatzen nuen. Futbolista bezala, baloiarekin ibiltzea gustatzen zait, beraz, baloiarekin egin

daitezkeen hainbat ariketa, beraiekin egingo nituzke: abdominalak esaterako.

### • UDATik irteten diren jokalariek oinarri ona eramaten dute beste taldeetara?

Maila hobeko taldeetara joaten direnean adibidez, jokalaria bezala bertan sendotzen direla uste dut. UDAn nabarmentzen diren arren, ondoren iristen zaie lana benetan gogor egiteko ordua.

### • Zuk izan duzu talderen baten eskeintzarik?

Orain dela gutxi Bergarara joateko eskaintza egin zidaten. Bestalde, hamazortzi urte nituela, Durango eta Lemonara joateko aukera ere izan nuen (bigarren B mailan zeuden), baina soldaduzka zela eta, bertan behera utzi behar izan nuen.

### • Samurra da ogiak egin eta futboleant jokatzea?

Entrenamenduetara joatea adibidez ez zitzaidan asko kostatzen, baina asteburuetakoa beste kontu bat da. Domeketan goizean goiz jaikitzen naiz ogia egiteko, eta sarritan partiduetara zuzenean joan izan naiz. Honelako kasuak gogorrrak dira, baina beno!

### • Futbola uztearen arrazoia?

Duda barik, denbora falta. Alde guztietara heltzeko takarradan ibili beharra izan dut urte hauetan. Lasaitasun apur bat ez zait batere gaizki etorriko.

### • Urte guztietatik zer botako duzu faltan?

Bertako lagunak eta giroa.

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
ARETXABALETA

**ARETXABALETA  
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 943 79 17 53  
ARETXABALETA



**Lurrindegia  
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59

**Mobiliario  
ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



# ASTIGARRAGAKO ALTXORRA

Ez zaitetze erratu, ez. Oraingo artikulu honetan ez ditugu sagardoaren bertute medizinalak aztertuko. Astigarragak hori iradokitzen badigu ere, izenak berak gure mendiotan ugaria den zuhaitz familia bati egiten dio kasu: Astigarragaren familiari hain zuzen ere.

Munduan dauden 150 espezie ingurutik Euskal Herrian zazpi aurkituko ditugu, hauetatik hiruzpala baino ez badira ere beren kabuz hasten.

Astigar guztiek badute beren artean ezaugarri amankomunik, esate baterako fruituaren egitura. Toki askotan hazi horri helikoptero deitu izan zaio lurrera erortzean ematen duen itxura dela eta; izan ere hegala baititu haizearen edota uraren laguntza aprobetxatu ahal izateko espeziea barreiatzeko bidean.

Hildo berean, giro hezea maite dute astigarrek eta gehienetan hosto-erorkorren babesean hazten dira; hariztiak bereziki maiteak dituzte. Basoan berez hazi ohi diren espezie ohizkoenak bi hauek dira:

**Astigar arrunta (arce común),  
Acer Campestre:**

Bost lobuludun hosto txikien jabea den zuhaitz ertaina dugu astigar arrunta. Zuhaitzaren izenak dioen bezala, guztietan arruntena dugu, eta esan liteke polittena ere badela.



*Astigar arruntaren fruituak*

**Eihar frantsesa (arce de  
Montpellier), Acer  
monspessulanus:**

Astigar arruntaren parekoa bada ere hostoak trilobulatuak ditu soilik. Espezie biok nekez ikusiko ditugu hirietako parke eta jardinetan.

Datorren astigar pare hau ordea sarriago aurkituko dugu hiri eta herrietako berdegunetan basoan baino, baina bere kabuz hasteko ahalmena ere badu bikoteak. Biek ere platanu arruntaren antzeko hostoa duten arren (begiratu izen zientifikoei) honetatik erraz bereiztuko ditugu, bost nerbiadurak puntu bakarretik hasten baitzaizkie astigarroi. Hona hemen bi espezieak:

**Astigar zuria (falso arce  
plátano), Acer pseudoplatanus:**

Hosto pentalobulatu zabal eta palmatuak azaltzen dizkigu, ertzetan hortzazkatuak.

**Astigar zorrotza (arce real) Acer  
platanoides:**

Astigar zuriaren antzekoa da baina hosto punta zorrotzagoen erakuslea. Bere barietate purpura ere ikusi ohi da hirietako parketan.

**Izen zientifikoak:**

- ACER CAMPESTRE
- ACER MONSPESSULANUS
- ACER PSEUDOPLATANUS
- ACER PLATANOIDES

Mikel Arroia

**DOIKALSE**

**Elektroerosio  
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 943 79 82 44

**BENGOA  
URDAITEGIA**

*Bertako okelak eta  
mortzilak*

Durana, 9  
Tfnoa: 943 79 19 79

**IRIARTE**

*Umeen  
denda*



Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 10 96



**FELIX  
PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56





## *Dantzari guztiak elkaturik*

**L**oramendi dantza taldeko dantzariak argazkia atera zuten 70. hamarkada hasieran. Egun horretan taldeko dantzari guztiak jendeaurrean euren saioa egiteko aitzakiaz atera ziren kalera. Goiz osoan makina bat dantza eskaini ostean, guztiak argazki dotore hau atera zuten. Hara zeintzuk diren erretratukoak.

Argazkian goitik hasita ezkerretik eskumara: **Bittor Beltran de Heredia, Corres, Iosu Aldai, Cándido Remedios, J. San Martin, Jabi Lopez de Armentia, Lorentxo Gorroño, Imanol Galfarsoro, Luis Mari Ezkurra, Jesus Aizpurua, Andoni Altube, Fidel Iturbe, Ramón Eraña, Mari Carmen Lonbide, Lurdes Garcia.**

**Miren Tere Larrinaga, Arantxa Lopez de Armentia, Gotzone San Migel, Esti Vesa, Itziar Mendieta, Iruna Galdos, Lurdes Etxebarria, Roberto Urteaga, Miguel Perez, Xabin Urreta, Ricardo Uribesalgo, Jesus Arregi.**

**Asier Aranguren, Aitor Armentia, Andoni Lopez de Armentia, Jose Angel Lazkano, Lorea Barrutia, Milagros Oxinaga, Miren Eraña, Maria Luisa Arando, Jon Zuazabeitia, Mikel Uribetxebarria, Angel Mari Errasti, Nuria Agirre, Alazne Larrinaga, Iñaki Sarasua, Iñaki Etxebarria, Felis Galfarsoro.**

**Imanol Altube, Iñaki Bengoa, Imanol Aizpurua, Jokin Bengoa, Iosu Igartua, Aitor Bengoa, Hugo Iriarte, Pello Olabe, Jon Kepa Zubillaga, Koldo Zubillaga, Imanol Etxabe, Aitor Sarasua, Mikel Otero, Jon Sarasua, Alberto Etxabe, Joseba Lopez de Armentia, Arritxu Oliden.**

**Arantzazu Larrinaga, Mireia Uribetxebarria, Jaione Olabe, Maiteder Aretxaga, Maite Urzelai, Idoia Errasti, Esther Azpiazu, Goreti Ayastuy, Edurne Zuazabeitia.**



## LANA

◆ Pertsona bat behar da Arrasateko taberna batean lan egiteko. Esperientzia eta euskara jakitea eskatzen da. Tfnoa: 943 79 60 10.

◆ 40 urte baino gehiagoko emakumea behar da umea zaintzeko. Tfnoa: 943 77 05 94.

◆ Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskalduna behar da. Tfnoa: 943 79 47 85.

◆ Langaiko lan eskaintza

**Interneteko programatzailea.**  
Ref.11901/8. Deba Garaia.

**Kontabilitateko gestorea.**  
Ref. 12066/2. Arabako lautada.

**Dendari-dekoratzailea.**  
Ref. 11684/3. Donostia.

**Cobol -eko programatzailea.**  
Ref. 12257/2. Bilbo.

**Sistemetako administradorea.**  
Ref. 11731/2. Bilbo ETT.

**Kamioietako mekaniko ajustatzailea.**  
Ref. 12118/2. Bilbo ezkeraldea.

**Industria ekipoak mantentzeko arduraduna.**  
Ref. 12135/3. Bidasoa behea.

◆ Lan eskaintza publikoak

**Erdi mailako teknikaria Oñatiko Udala**  
Titulazioa: zuzenbide, enpresa edo ekonomia lizentziaturen lehenengo hiru kurtsoak.



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.**

Epea: 98/9/21.  
Oinarriak: 98/7/15.

**Instalazioetako laguntzailea Iruñako Udala.**  
Epea: 98/9/23.  
Oinarriak: 98/8/24.

## DENETARIK

◆ Leioan pisu bat osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 943 79 30 61 telefono zenbakira.

◆ BERGARAKO KINTADA. 1948an jaiotako enafaria antolatatu da Lasa jatetxean 9,30etan datorren irailaren 26rako. Baina aurretik Santa Marinaran meza izango da, eta afalostean dantzaldia mariatxiek. Izen ematea 8.500 pta (kutxan edo Euskadiko kutxan).

◆ Piso bat alokatu nahi dugu Arrasate edo inguruan. Bero-gailuarekin nahiago genduke. Tfnoa: 94 4612429-94 4619693.

## ETXEBIZITZA

◆ Apartamentu bat salgai dago Donostiako Egia auzoan, Virgen Blanca kalean. Tfnoa: 943 43 11 00.

◆ Pisua salgai dago Eskoriaztzako San Pedro auzoko 11. zenbakian, 2. solairua. Interesatuak deitu 943 71 43 58 telefono zenbakira. (Felis).

◆ Pisu bat alokatzen da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 40 19.

## LEHIAKETAK

◆ **Jokin Zaitegi XII. itzulpen laburren sariketa.** Arrasateko AED elkarteak Jokin Zaitegi itzulpen laburren XII. sariketa deialdia zabaldu du. Lehiaketa honetan edozein pertsonak har dezake parte eta gaia librean izango da. Lanak AED elkartera zuzendu behar dira urriaren 31a baino lehen. Informazio gehiago 943 77 12 28 telefono zenbakian.

◆ Arrasateko emakume sailak eta Gazte bulegoak **“Gazteak eta komunikazioa”** lelopean XI. argazki lehiaketa antolatu dute. Bi modalitate egongo dira koloretan eta txuri-beltzean. Epea: urriak 9. Informazioa Arrasateko Gazte bulegoan, 943 77 00 65.

◆ **“Gazteak eta intsumisioa” argazki lehiaketa.** Epea: urriak 19. Informazioa Arrasateko Gazte bulegoan, 943 77 00 65.



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 943 79 34 28  
**ARETXABALETAKO**

## ITURGINTZA

**J.J**

Tfnoa: 943 79 07 34/79 31 87

## CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 943 77 17 06

Aralar z/g  
Tfnoa: 943 77 17 04

ARETXABALETAKO



# Iraileko malda?



M. J. Arretxe

Opor garaia alde batera utzi eta lanean hasteko beharra, "iraileko malda" bezala ezagutzen dute askok. Azken aldian eguraldia aldrebes xamar badabilkigu ere, ezin nezake esan malda honek herrian eragin handirik izan duenik. Oraingoan ere beste kontu pilo batekin natorkizuelako:

Kirol kontuak dira nagusi oraingoan. Izan ere iraila helduaz bat UDAK denboraldi berriari ekin baitio. Denboraldiko lehen partiduan atxabaltarrek berdinketa lortu bazuten ere, domekan samur irabazi zuten Beti Ona taldearen aurka: 6-0. **Jon Ander Larrinaga** trebe ibili zen partiduan, sei goletatik lau berak lortutakoak izan baitziren. **Asier Ingiduak** eta **Iban Gonzalezek** ere euren alea jarri zuten, biek gol bana sartuz.

Futbolarekin jarraituz, **Andoni Zubizarretak** San Migeletan jasoko duen omenaldia, hainbeste urtetako lana txalotzeko beste modu bat izango da.

Futbolekin mendira jauzi egingo dut. Jakin baitakit Iñurrategi anaien hurrengo erronkaren berri. "Al filo de lo imposible" programako taldekideekin Himalaya inguruko mendi batera abiatu dira. Ez da oso mendi ezaguna, Gyala Peri 7.151 metrokoa, eta gainera oso jende gutxi izan da bere tontorrean. Nire partetik, zorterik onena **Felix** eta **Albertori**.

Erronka kontuekin jarraituz, ez da makala **Xabier Sarasuak** hemendik aurrera bete beharko duen papera. Bera arduratuko baita euskara elkartearen dinamizazio eta lanen koordinatzeaz Topaguneko idazkari orokorraren lana beteaz.

**Amaita Gastañagak** ere agur esan digun arren, Aretxagazetan berak utzitako lekua bete beharra dago. Honela ba, datorren hamabostaldian emango dizuet bere ordezkariaren berri.

Eskerrak San Migelak ere ganean ditugula. Bertsolariak, kontzertuak, sagardoa eta taloa dastatzeko aukera... eta txori txiki bati entzun diodanez, jai batzordekoak asto lasterketa antolatzekotan daude. Non da baina hainbeste aldiz entzun dudana iraileko malda?

## Liburutegiko txokoa



### Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean

Mariasun Landa  
Asun Balzola-ren irudiak  
Anaya Haritza, 1997 (Liburu zopa; 2)

**M**aider bere gurasoekin eta amonarekin bizi den neska gazte bat da istorio honetako protagonista eta narratzailea. Halako batean katu txiki bat aurkitu eta etxera eramango du. Ofeita izena emango dio katuari eta bere lagunik onena izango da bere gurasoen banaketa ematen ari den bitartean.

Bere ohizko estilo zehatz baina poetikoan, "Nire eskua zurean" liburuan egin zuen bezala, Landak berriz ere familia ereduari buruzko gaia jartzen du mahai ganean, familiaren apurketak gazteengan sortzen dituen egoera berriak aztertuz eta erreflexiorako bideak emanez. Animalien ganako maitasunaren gaia eta bakardadearena ere lantzen ditu bide batez.

Liburu hau 12 urtetik aurrerako gazteentzat proposa da oso darabilen gaiagatik eta Mariasunek ematen dion erritmo biziari esker berehala irakurtzen delako.

Gaztelarazko bertsioa ere aurkituko duzue Udal Liburutegian.

Joseba Lopez de Armentia



IRAILA

Errekararren Merkatal Zentrua

25, 26, 27

19

zapatua

20

domeka

**SAN MIGELAK**

Euskal giroko San Migel jaiak irailaren 25, 26 eta 27an ospatuko dira. Ekintzen berri esku programan zehazten da.

**SAN MARTIN AGIRRE JAIAK BERGARAN**

Egun honetan zehar 4etan txirringulari lasterketa, 5etan **nazioarteko eskubaloiturneoa**, 7,30etan herri krosa eta gauean **bertso jaialdia** izango da Ainhoa Agirreazaldegi, Andoni Egaña, Jesus Mari Irazu, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio eta Jon Sarasua bertsolariekin Novedades aretoan. Gai jartzaila: Joxerra Gartzia.

**HAUR DANTZARIEN EGUNA**

Goizeko 11,30etatik aurrera herriko hainbat txokotan dantzaldiak izango dira. Arratsaldeko 5etan alardea izango da plazan.

URRIA

3

zapatua

**JUBILATUEN EGUNA**

**MIKEL LABOA OÑATIN**

Oñatiko Zubikoa kiroletxean Mikel Laboa egongo da gaueko 10,30etan Laixan elkarteak antolatuta. Sarrerak aurrez 1.000 pta, takilan 1.200 pta.


19-25

**XAKE ASTEA BERGARAN**

San martin Agirre jaien barruan xake astea ospatuko da Bergaran irailaren 19tik 25era.



Baserritar jantzia ateratzeko ordua heldu da.



**LOGOPEDIA ZENTRUA**

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea  
Tel: 943 79 79 46  
ARRASATE

**ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA**

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 943 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 943 79 44 28  
ARETXABALETA



4

domeka

**DAKOTA ANTZERKIA**

Aratzek antolatuta Ttantaka taldearen Dakota antzezlan izango da kiroletxean arratsaldeko 7,30etan. Antzezleak: Jose Ramon Soroiz, Joseba Apaolaza, Aizpea Goenaga eta Ramon Agirre.

**IKASTARROAK****TAILA IKASTAROA**

Okila taldeak hasiera mailako taila ikastaroa antolatu du. Urriaren 5ean hasiko da 6etatik 8etara eta astean hiru egunetan emango da. Iraupena: 60 ordu. Izen ematea udaletxean, kultur etxean edo Okila elkartearen bertan egin daiteke (Murubide, 5).

**GERONTOLOGIAKO IKASTAROA**

Geriatrian harreta eta prebentzioari buruzko 20 orduko ikastaroa antolatu du Arrasateko ICTE Institutuak irailaren 23tik urriaren 2ra bitartean. Izen emateak eta informazio gehiago 943 77 17 15 telefono zenbakian.

**BEINKE-LORAMENDI DANTZA IKASTAROA**

San Migelak gerturatuaz doazela eta, oraingo honetan ere Loramendi elkarteak Beinke-Loramendi dantza ikastaroa martxan jarri du. Astearte eta eguakotxetan Kurtzebarri eskolan entsaiatzeko eta ikasteko aukera dago arratsaldeko 8etatik aurrera. Beraz, dantzaldian parte hartu nahi duenak entsaioetara gertura daiteke.

**MUSIKA ESKOLA**

Musikarekin lehen harremanak lantzen dituzten lau, bost eta sei urteko umeentzat apuntatzeko aukera dago musika eskolan. Tfnoa: 943 79 36 50.

**AISIALDI BEGIRALE TITULUA ATERATZEKO**

Txatxilipurdik aisialdiko begirale titulua eskuratzeko aukera ematen du. Ikastaroa 200 ordukoa izango da, urriari hasi eta maiatzerarte. Matrikula epea irailaren 26a baino lehen egin behar da. Informazio gehiagorako deitu 943 79 54 46 telefonora edo Pablo Uranga, 4 kalera hurbildu, Arrasaten.

**BEHARREZKO TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 01 05
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

**Udaltzaingoa**

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

**Larrialdia**

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 79 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

**Garraioak**

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

**OPEL** 

Zerbitzu Ofiziala

■ *Kotxe marka guztien konponketak*

■ *Zerbitzu guztiak*

Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 943 79 62 65  
/79 20 86 Fax: 943 77 17 20 ARETXABALETA








Urriaren hasieran irekiko dugu!

Emakumeendako gimnasioa eta estetika-zentru mistoa.

300 m<sup>2</sup> eta talde profesionalena, zerbitzurik onena eskaintzeko.

Taldeak osatzen ari gara. Argibide gehiagorako eta izena emateko hotsegin 943 79 52 17 telefonora.



## EMAKUME-GIMNASIOA

- Aerobic (ibilitakoentzat, hasberrientzat eta umeentzat)
- Mantenimendu-gimnasia
- Yoga
- Bizkarra zuzentzeko gimnasia
- Erditu aurreko eta ondoko gimnasia
- Aretoko dantzak
- Zerbitzu medikoa
- Masajea (fisioterapeuta batek emana)
- Makina aerobikoak

## ESTETIKA-ZENTRUA

1. Depilazioa argizari hotzez eta beroz
2. Depilazio elektrikoa
3. Gorputz tratamenduak
  - Drenaje linfatikoa
  - Presoterapia (zirkulazioa)
  - Berrindartzailea
  - Mesoterapia (zelulitisaren aurkakoa)
  - Hidromasaje-bainuontzia
4. Aurpegi tratamendua
  - Azala garbitzea
  - Zimurren aurkakoa
  - Hidratazioa
  - Berrindartzailea
5. Solariuma
6. Makilaje iraunkorra
  - Ezpainen makilaje iraunkorra
  - Bekainen makilaje iraunkorra
7. Makilajea
8. Kontrol medikoa duten dietak
9. Barizeen tratamendua
10. Manikura
11. Pedikura
12. Liposukzioen kudeaketa eta kontrola  
(sendagileek beren zentroetan egiten dute)



## ASTE BUKAERARAKO PROGRAMA ERLAXAGARRIAK

(LARUNBATAK ETA IGANDEAK)

1.

Dutxa eskoziarra  
Hidromasaje-bainuontzia  
Masaje erlaxagarria

EGUN BATEKOA

2.

Dutxa eskoziarra  
Lurrun-bainuak  
Masaje erlaxagarria

Hidromasaje-bainuontzia  
Presoterapia  
Masaje erlaxagarria

BI EGUNEKOA

3.

Dutxa eskoziarra  
Lurrun-bainuak  
Masaje erlaxagarria

Hidromasaje-bainuontzia  
Lokatzak  
Masaje erlaxagarria

BI EGUNEKOA



# Truke Operazioa

Amuebladora Mondragonesa

EKARRI ZURE  
KOLTXOI ZAHARRA...



..ETA 10.000 PTA  
ARTEKO BEHERAPENA  
izango duzu zure Atsedean  
Sistema Berrian

## FLEX



Loa kenduko ez  
dizuten prezioak.  
Zatoz eta galdetu!

grupo



**Amuebladora  
Mondragonesa**



a. eme. interiores, Garibai, 9 ARRASATE  
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ARRASATE